

HONDARRIBIAKO HISTORIA IRAKURTZEN

Irun (2002.12.29)

Nafarroak Hondarribiaz ditugun lehen aipamenak historiaurre eta erromatarren garaikoak dira. Junkal eta inguruko aztarnategiek Oiaso izeneko baskoi hirigunea bertan zegoela erakusten digute. Erromatarren inperioa erortzean, eta horrek utzi zuen botere hutsunea bete ahal izateko, inbaditzaile berrien aurka borrokan jarraitu zuen. Orreagako gudek frankoen hedakuntza geldiarazteaz gain, Baskoniar aroari amaiera emango diote, eta, 824tik aurrera, geure herriko indar ezberdinek Nafarroako erresumaren eraketan borondatezko partehartzea izango dute, hasieran Iruñako erreinuaren izena hartu badu ere ezaugarriak ere baditu: adibidez, itsas merkataritza hobetzeko Gaskoi familia ugari, Foruan Franko deituak, erakarriko ditu. Oria eta Bidasoa ibaien arteko lurraldeetako biztanleek Donostiako Foruaz baliatuz, euren merkataritza antolatzeak askatasuna eta erraztasunak izango dituzte. Hondarribiak ere, Donostiako errege- lurraldea denez, Foru beraiek izango ditu.

Gure Erresumaren babes gotorlekuen artean Hondarribikoa dugu. Besteak beste, Antso II. Abarkak (970- 994) Armen Enparantzan gotorlekua eraiki omen zuen. Antso VII. Azkarrak (1194-1234) berrindartu eta Hiribilduko harresia altxatu zuen. Edozein modutan, konkistarako grina lege bihurturik, Gaztelako Alfontso VII.ak, 1200ean, Nafarroako mendebaldea, hau da, itsasaldea konkistatzen du. Besteen artean, Rodako Rodrigo Ximenez artzapezpikuaren kronikan Nafarroari lapurtutako itsas aldeko hiribilduen zerrendan Fontem Rapidum Donostiakoaren ondoren agertzen da.

Nafarroa hain beharrezkoa duen itsasaldeko irteerarik gabe gelditzen da. Beren baliabideak murriztuak ikusiko ditu, baina ez dio beren lurralde legitimoak berreskuratzeari uko egin. Konkistatuak izan ondoren, 1203an Gaztelako erregeak Donostiatik banandu zuen. Hondarribiako gotorlekuak, aurrerantzean, Txingudi inguruko lurak izango ditu.

Gaztelako erreinuak, ordea, artean Iruñako politikak emandako fruituen aurka, Higerreko Gotorlekua Nafarroaren aurka jartzen du. Hondarribiarrek, besterik ezean, gogor egiten dute euren Foruen alde. Gaztelak nafar foruak bere gogoz kontra eta halabeharrez mantentzen ditu. Nafarroako sistema juridikoan Forua beste legeetatik gailentzen da. Aldiz, Gaztelak konkistatutako foru-lurraldeetan Foruak itoztera joko du. Bide horretan, erregeak eskatzen zuen obediencia bermatzeko, bere ordezkioak, korrejidoreak... jartzen ditu. Eta behar izanez gero ere presondegia, errege armada eta abar erabiliko ditu. Horrela, alde batetik, Foruak geure boterearen ahalmen, eta bestetik, Gaztelako estatu botere ezarpenaren arteko Paktu inplizitua mantentzen da.

Nafarroak inguruko erresumen jomugan jarraitzen du. Hurrengo konkistek, egun ere irauten duenez, Nafarroako estatu lurraldearen zatiketa ekarriko dute. XVI. mendearen lehen hereneko gatazkak Nafarroako estatuaren etorkizunean erabakigarriak izango dira.

Hondarribia nafarrentzat beti luzakina izan da. Nahiz konkista pean egon, hain beharrezkoa zuen itsaso irteerak eraman du harreman estuak izatera.

Nafarroako Katalina I legezko erreginareen semea, Enrike II.ari Fernando "Farsarioak" koroa kentzen dio 1521eko maiatzean. Frantziako Frantzisko I.aren laguntza du koroa berriro berreskuratzeko. Maia gotorlekua hartu ondoren, 1521.eko urriaren 6an Hondarribia inguratzen dute. Hamabi eguneko setioaren ondoren Diego de Veraren esku dagoen plaza militarra Nafar erregeak berreskuratzen du. Gotorlekuan Jatsu, bere anaia Juan eta bere lehengusua Balentin ziren.